



Larrialdia baso suteak direla eta

**EROSKI FUNDAZIOAK 50.000 EURO EMAN DIZKIO
DOHAINTZAN ESPAINIAKO GURUTZE GORRIARI BASO SUTEEI
AURRE EGITEN LAGUNTZEKO**

- **Ekarpenak Espainiako Gurutze Gorriari lagunduko dio giza laguntza sendotzen eta kaltetu direnen beharrei erantzuten.**
- **Suteen ondorioz, milaka lagun ebakuatu behar izan dituzte, eta larrialdi operatibo zabal bat dute hedatua herrialdeko toki batean baino gehiagotan.**

Elorrio, 2026ko uztailaren 30a.– [EROSKI Fundazioak](#) 50.000 euroko dohaintza egin dio Espainiako Gurutze Gorriari, baso sute larriengatik erakunde horrek aktibatuta duen operatiboari laguntzeko. Asteak daramatzate kalteak jasanez herrialdeko toki batean baino gehiagotan; batik bat, Madrilgo mendebaldeko mendilerroan, Avilan eta Castellonen.

Ekarpenari esker, Espainiako Gurutze Gorriak erantzun sendoagoa eman ahalko du, eta lagunduko du taldeak, boluntarioak eta bitartekoak mobilizatzen. Horrela, kalteturik suertatu direnen beharrei errazago erantzun ahalko diete, bai eta laguntza logistikoa eman ere suteak itzali nahian ari diren larrialdiko zerbitzuei.

Azken asteetako baso suteak direla eta, milaka lagun ebakuatu eta konfinatu beharrean gertatu dira, eta kalte larriak izan dira udalerri eta espazio natural askotan. Hori ikusirik, Espainiako Gurutze Gorriak operatibo zabal bat hedatua du behin behineko aterpetxeak kudeatzeko eta haietan dauden ebakuatuak artatzeko, elikagaiak, ura eta oinarritzko produktuak banatuz, arreta soziala eta laguntza psikosoziala emanez; horretaz gainera, emergentzia zereginetan diharduten askotariko erakundeekin kolaboratzen dihardu.

"EROSKI Fundazioak elkartasuna adierazi nahi die larrialdian kaltetu diren guztiei, eta Espainiako Gurutze Gorriari lagundu nahi dio, behar diren baliabideak mobilizatzen eta premia handiena den lekuetan jendea artatzen. Ekarpen honekin, erantzun bizkor eta eraginkor bat eman nahi dugu une zail-zail hauetan", esan du **Alejandro Martinez Berriochoak**, EROSKI Fundazioko zuzendari nagusiak.

"Eskerrak eman nahi dizkiogu EROSKI Fundazioari ekarpen honegatik. Horrek, lagunduko du Espainiako Gurutze Gorria ematen ari den laguntza areagotzen eta baso suteetan kaltetu direnak artatzen. Funtsezkoa izaten da konprometiturik dauden enpresen kolaborazioa, erantzun arin eta eraginkorra eman dezagun tamaina honetako larrialdiak izaten direnean", adierazi du **Jaime Gregorik, Espainiako Gurutze Gorriarentzako Baliabideak Lortzeko, Aliantzatarako eta Gizarte Erantzukizunerako zuzendari nazionalak.**

EROSKI Fundazioa konprometituta dago egoera bereziki zaugarrian diren pertsona eta komunitateen alde, eta ildo horretan etengabe egiten duen ahaleginaren parte da lankidetzan hau. Espainiako Gurutze Gorriarekin eta horrelako erakunde espezializatuekin lankidetzan arituta, Fundazioak laguntzen du larrialdi humanitarioei erantzuten eta bere jarduera garatzen duen lurraldeetako jendearen ongizatea sustatzen.

EROSKI FUNDAZIOAri buruz

EROSKIk 1997an bultzatutako ekimena da EROSKI Fundazioa, helburu duena gizartearentzako ekintza sozialeko ekimenak garatzea. Batez ere, ikerketa, berrikuntza, sustapena, hezkuntza eta kontsumitzaileen zein ingurunearen babesa dute ardatz ekimenek, eta betiere elikadura eta ohitura osasungarriak zaintzea. Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta kohesionatuagoa sustatzen du fundazioak, jardunaren oinarrian beti interkooperatibismoa hartuta.